

BARRENSORO-REN "UZTARO"

«Uztaro». Belaunaldi gazteari eta hain gaztea ez denari ere ez zaio, behar bada, ezagun egingo izen hau.

Hainbeste amets itxaropentsu eten eta ondamen gorrian dena amiltzen duen gudak moztu zuen Barrensororen literaturagintza. Onen-onenean moztu ere. Gerrateaz gero mututu eta zeharo ezkutatu zen euskal letretatik. Haren elaberria duzu «Uztaro». Guda aurreko loratze miresgarriaren lekuko, euskal liburutegietako apaletan hautsez eta ahazturik datzan bitxia. Literatura arloan inoiz ederretsi eta miretsia izan bada, noiz-baiteko txalo-hotsak aspaldi suntsitu dira. Oraintxe, urte zahar eta berriaren muga agur egin digunean, erdi-esan edo eta ezin besteko aipamen batzuk azaldu dira egunkarietan... Desorduko goratarreak! Bizi zela ez zuen jaso merezi izandako uztarik. Gazteetarik nor daki, gaur egun, Agirre-tar Toma «Barrensoror» nor zen?

Nik neuk ere orain dela gutxi ezagutu izan dut adiskide baten bidez. Orduan irakurri nuen «Uztaro» elaberria. Izadiaren olerkari eta euskararen artista bikain deritzat harez gero Barrensorori. Euskal kulturaren hesparru meharrean, zetan edo hatan gabiltzan guztiok, lehengo eta oraingo, zahar eta gazte, idazkera bateko nahiz besteko, hango eta hemengo senikera ezpiritual batez elkarganatuak bizi behar genuke. Idazle

baten heriotza, geure-geurea den norbait galtzea ez ote da? Hilkanpaiaren doinu samingarria dakarkigute oroimenera egunkariko letra beltzen errenkadan holako izenez topo dagigunean. Ni ere desorduko ondrotara ote noan nago. Baina legea, desorduak desordu, ahal denean, bakoitzari berea ematea.

Haren bizitza eta lanaren berri laburra

L. Villasante-ren «Historia de la Literatura Vasca» liburu ezagunean ez dut ezer aurkitu idazle honetaz; ezta L. Mitxelena-renean ere. S. Onaindiaren Euskal Literaturatik jaso ditut ondoko berriok. Era berean honen iturriak, berak aipatzen dituzenez, hauexek dira: Eusko Gogoa, Yakintza, S. Onaindia MEOE, J. San Martin-en Escritores euskéricos, Auñamendi Literatura III eta azkenez J. Bilbao-ren Eusko Bibliografia.

Tomas Agirre Urdailleta (Barrenso), Errexilen jaioa genuen 1898.ean. Azken gerrateaz gero Sevillan bizi izan zen, bere ogibidea zuen merkataritza lanean. Bizkaian eman ditu, ordea, oraintsuko urteak eta hil ere bertan egin da.

«Yayotzez errexildarra duzu, biotzez bilbotarra» —dio haretaz J. Zaitetik. EUSKO GOGOA-ren zuzendariak maite-maite du idazle hau: «1930 g. urtez gero bere idazlanen zantzuan naukazu. Ao-sapaia ur biurtzen bai-zitzaidan. Ameriketako oyan itzaltsuetan barna pozik irakurtzen nizkizun bere irakurgai ariñak. Gero ere bai eskuarki» (Euzko Gogoa, 1950 I. 13. orr.).

Haren euskal literaturako lana honela sailka genezake handi-handika:

—*Ipuigintza*: Literatura mota honetan sar daitekela —uste dut «Gazigozoak» bildumako lana, saio erakoak ere tarteka egon arren. Orduko aldizkarietara bidalitako lanez osotua da bilduma. «Kirikiño» saria lortu zuen idazlan bat ere badugu hemen: «Goazik baserri aldera: Amaika nekeren semea dek ogia!».

—*Nobelagintza*: «UZTARO».

—*Olerkigintza*: Orduan gailur-gailurreko ziren olerkari-kin batera, «Euskaltzaleak» izeneko erakundeak eratutako lehiaketara aurkeztu zen 1931.ean. Lizardiren «Urte-giroak ene begian» lanak eraman zuen lehen saria. Hona beste olerkarien izenak: M. Lekuona, Tapia-Perurena, Jautarkol, Jakakortaxarena, Loramendi, Agirre-tar Toma etab.

Olerki hauek, gero, «EUSKO OLERKIAK, II» izenez liburu batetan argitaratu ziren Aitzol-en sarreraz orniturik. Sarrera hau oso baliagarri zaigu, gaur egun, apaingarri edo eta liburuaren aurkezpen hutsa ez baita, benetako kritika zorrotz eta orekatsua baizik. Jautarkol eta Tapia-Perurena «irudiz ugari minkuntzez bigun» zirela dio Aitzol-ek. Eta honela darraio bere kritikari: «Oetakoxea, erdizka bada ere, Agirre'tar Toma, oraingoz lendabizi, olerkari antzo datorkiguna. Edermenaz orritsu: orritsuegi, agian, adi-izpi zolien kaltegarri ia. Goiargiak sututakoa, benetan, gipuzkoar ertilari au».

Barrensoरो idazlearen miresleetariko bat J. Zaitegi duzu. Goian aipatutakoaz gainera, hona beronen eritzia:

«Izkera bizi, guri eta apatza darabil eta itz polit txanbelin eta taxak atsegin zaizkio. Euskal-elerti barrutian Barrensoरो'ren itz-laua bereki, berri eta kementsua duzu. Gure artean eragin andia egingo dulakoan nagokizu. Itz garbi, aratz, ugari ta poxpoliñak bakarrik ez darabiltzi... Azal zinlo-gardenaren azpian, ibaia iduri, sakon, bero, bizi, yoan doa izaki guztien funtsa. Dana bere xeetasun esanguratsuenaz... Orain arteko idazle ainitzen itz-laua, ardagaia baño legorragoa zenun eta gelatsuan lingilizka oi diran abarkak baño igarragoa. Beraz, Euskal-elerti berbizkundeari bultzada sendoa erautsi dio bere irudimen zoragarri ta argiari esker Berrensoरो'k. Onen idaztietan, olerkariak ere, izkera landu ta orraztua gertu idoroko dute. Lore-pitxi oiek lagun, arrobietako arri aundiak atera ta elerti-yauregi ikusgarria eraiki al izango dute» (Euzko Gogoa, 1950, I., 14. orr.).

Ohitura elaberria

Bilboko «Editorial Vasca»n argitara zen lehenengoz «UZ-TARO», 1937.ean. Bigarrenez ere argitaletxe berean, 1950.ean.

Berau izango da, zalantzarik gabe, egilearen lanik onena. Gu-
dak betiko etenda barnean, ezkutuan gordeko zuen altxor
joriaren adierazgarri.

Ohitura elaberria dugu. Euskal ohiturak, bere kutsu ga-
beko giro liluragarrian ematea du helburu. Mikel Zarete, Euskal Literatura liburuan, Txomin Agirrez ari dela, honela diosku:

«Erromantizismo bizi irudimentsu nahaspilaren ondorengo giroa errealismoa izan zen. Eta lehengo mendearen erdialdian hasi eta mende honen hasierarte iraun zuen. Gaingiroz begiraturik, giro hortako idazleen ezaugarriak agiriak hauen dira: 1. Erromantikuen irudimen lanak alde batera utzi ta errealitatea arakatu ta pintatu; 2. Ipuiak eta lehenagoko historia alde batera utzi ta ohitura-kuadrak egin; 3. Moral kutsu bat ezarri idazlanei».

Irudimen joria du Barrensorok, baina hala ere errealista. Irudi bitxiz eta apaingarri dotorez euskal ohiturak jazten eta ederresten saiatu da. Moral kutsua nabari-nabari dago nobela osoan zehar. Elaberriaren bukaerako hitzei, alde horretatik, esanguratsuak deriztet: «Ara nola betikoratzen diran gura-soengandik semeengana eusko-sendiak eta sendi-ohiturak!».

«Uztaro»ren kontaketa haria

Itsaserri batetako baserri-bizitza du elaberri honek kon-
tagai. Dorronsoro baserrikoak ageri zaizkigu batipat. Dorronsoro etxalde aberatsa. Morroi eta neskamea etxean, baita etxe bat ere maiztergoan emanda.

Dorronsoroko alaba gazteena zen Malentxoren maiteminaldiak batetik eta etxekeok gaitzetsi duten maitasun horren itzali nahia bestetik... auzi hori plazaratzen digu elaberri honek. Hori du ardatz. Jakina! errealitatea jantzi eta itxuratzeko murriztegia litzateke hori bakarrik. Auzia erdi-biloizik geratuko ez bada, egia antz piska bat izatekotan, haria gehiago korapilotu eta pertsonaia eta gorabehera ugariago sartu behar. Hain zuzen ere, aipaturiko bikotearen hurbil-hurbilean beste bikote bat dugu ezkutuxeago; baina noiz behinka protagonista

mailaraino ia iristen dena: Libe eta Balendin, Dorronsoroko morroi zintzoa.

Dorronsoroko alaba ederrak aurkezten dizkigu idazleak.

Malentxo Donostiara doa ikasketak egitera. Han udatiar beltzeran ausarti batek begiz jo, eta maitemindurik edo, harreman berezietan jartzen dira biak; geroago ta beroago «La Perla» dantza-lekuko giro zoroak lagundurik. Balendin-ek zerbaiten zantzua izan, eta artega zebilen mutila. Bere arreba bailitzan maite zituen Libe eta Malentxo. Libe, etxe-etxekoa, maratza, xumea, isila zen. Gainera baserriak ondo hartzen zuen-atarikoa. Baserria bere-berea zuen. Malentxo, ordea, txinpartaren jaikikoa eta aspertu egiten zen Dorronsoron. Kaleko zalaparta, bizitasun eta irakina... hori zen haren gogokoa.

Balendin-ek, Ernioko mendi-eguna igarota, ilunabarrean lagunei aurrea harturik lasterbidetik etxera zetorrela, zokondo batetan Malentxo eta honen maitalea begiztatzen ditu. Malentxo, mutila utzi ondoren, etxeratu zelakoa egin zuenean, Balendin-ek zakurra xaxatu eta bere bidean zihoan mutilagana agintzen dio... Beste behin ere, mutila Dorronsoroko inguruetan ezkutu-gordeka zebilela, Balendin-ekin aurrez-aurre aurkitu zen, baita astinaldi latza hartu ere honengandik.

Zer gertatuko ere, etxeko alaba gazteenarentzat onena nahiez... Lasturretara —Aizarna ondoko auzora— bidali nahi zuten, osasunaren aitzakiz. Ezin bestean eta barnetik lehertu beharrean, makurtu zen etxeko nagusiaren esanera. Erbestaldi eta zigor latz bat bezala jausi zitzaion Lasturretara joan behar hori. Nahigabea nolabait arintzearren, Libe ahizpa goxo eta ona emango diote lagun.

Zitok —Malentxoren maitaleak— ez zuen bakerik ez onik Malentxoren egoitza berria non zen jakin arte. Dorronsorora jo zuen lehenengo, Martin apaizarengana, baina alperrik. Ez zuen ezer jakiterik lortu. Gero, «Antzuela» eskale maltzurra gertatuko zaio parean eta honi erasotzen dio, baita lortu ere nahi zuena. Diru-truke dena lortzen omen da... Mandatari aparta «Antzuela» hau! Honen bidez Malentxorekiko harremanetan jarraituko du, baina ez luzaroko. Isilpeko jokoetxe batetan diruak hartu eta iheska zihoala, poliziak tiroz eratsirik hil

zen Zito. Malentxok Liberengandik jakin zuen albiste garratza, hau amaren gaisoaldia zela ta Zarautza joana baitzen. Malentxo etsipen gorrian amildu zen, baina lehen uneko samina gaindituz, Jainkoaren borondatea garbi ikusi uste zuen: berak lekai-ize izan behar zuela, alegia. Harez gero, Lasturretako Ama Birjinaren irudiari ez zitzaion lorarik falta izan. Malentxok zuen hura apaintzeko ardura. Zeharo aldaturik eta txoria kaiolan ekanduta bezala, poz-pezik eta bertakoturik zegoen Malentxo Lasturretan. Baina... etxerako garaia heldu.

Osaba Martin apaiza eta etxeko adiskide leial Agerre joan zitzaizkien ahizpa biei bila. Lasturretatik Aizarna bitartean, bide-zidorrean laurak batera ezin eta, binaka banatu ziren: Malentxo eta osaba Martin batetik, eta Libe eta Agerre bestetik. Batzuek zein besteek gai interesgarriak izan zituzten mintzagai. Malentxok, lekai-ize joateko bere erabakia adierazi zion osaba Martini; Agerre, berriz, Libe eta Balendin-en zoriona iritsi nahirik, han zebilen zirika haren barruko egoera aztertze-ko asmotan. Lehenxeago Balendin-ekin ere beste horrenbeste egin zuten...

Ipuin mirezgarrien antzera bukatzen da elaberri honen kontaketa-haria: Agerrearen bitartekotasunez, Balendin eta Libe elkarrekin ezkondu eta zoriontsu bizi izan ziren, bien ezpaleko seme-alabekin. Malentxo ere, erabaki zuenez, Zumaiako lekai-ize batetan sartu zen eta hau ere zoriontsua izan zen...

«Uztaro»ren egitura

Donostiako trena udatiarrez eta bestelakoz Zarautza iristean abiatzen da kontaketa-haria. Logikaz, hemen kontatzen den historia bide luzea egin eta korapilotua zen ordurako. Korapilota, berriz, bere bihurtzerik nahasienera, Malentxo eta Zito-ren arteko harremanak galarazi nahi diren unean heltzen da. Harreman horien susmoa etxekoei iritsi ala, hauek zelatan jartzen dira eta tirabira latza sortuko da. Auzi konponkaitza. Malentxo eta Zito daude alde batean, eta harreman horiek galarazi nahi lituzketen Dorronsoroko buruak bestean. Korapilota ez da askatzen azken-azkenerrate. Zito poliziaren eskuz hiltzen denerate, hain zuzen.

Auzia bizi-bizi ematearren edo, noiz-behinka atzera-aurre-rakoak egiten ditu kronologiari dagokionez. Elaberriaren abiapuntuan, Donostiatik Zarautza datorren trenetik jeisten da Malentxo. Urduri dago. Udatiar beltzeran batekin hasi da ta... Oraindik oso gutxi dakigu pertsonaia hauetaz, baina historiao hasita eta korapiloturik dela, bizi-biziro aurketzen dizkigu. Dorronsoroko besteak ere, bikote honen harremanetatik zintzilik aurkeztuko dizkigu. Baldintza horren pean: ezer ez dakitenean, bare; susmoak indar hartu ala, artega edo eta haserre. Flax baten antzera sekuenzia baten bukaera edo laburpena ematen digu; geroako zehatz-mehatz, hasieratik azkenera azaltzeko. Beste horrenbeste egiten du Mikel, Dorronsoroko nagusiaren kasuan: «Nagusia il zanez geroztik etxe-inguruko lan-xamarrak erabiltzea du egitekorik bakarra». (Balendin-*ez mintzo da*). Geroxeago kontatuko digu, ordea, Mikelen heriotza, bide-lapurren eskutan hilik gertatu zelarik.

Kasu hauetaz ate, urratsez urrats aurrera darama auzia, atzera-aurre-*rakorik egin gabe*.

Elaberriari goian adierazi dugunez abiada eman ondoren, atzera begiratu eta hari-muturrari ondo heldu nahi lioke mataza nahasi baino lehen: «Baña..., mataza nastu ta biurritu baño len, aria ondo arildu ta albañatzea dagokio edeslari ikasiari. Beraz, artu arimuturra ta, ekin dezaioGUN arilkaia*ri*». (Ikus 16. orr.).

Baditu, nire ustez, betegarri diren zenbait pasarte. Kapitulo osoak ere baietz esango nuke. Zer funtzio ote dute, bada, aipaturiko pasarte horiek? Ohitura-kuadruak moldatzea alde batetik; eta goretsi nahi diren pertsonaien doaiak obeto adieraztea. Hona kontakizun-haritik urru diren kapituloak: II. Igande goiza (23 orr.); III. Zarautzik Getari'ra bidean (33 orr.); IX. Apustu-eguna (213 orr.). Eguraldiaren eta izadiaren deskribzioak egiteko maiz jo ohi du Barrensorok irudi barrokoetara. Hauek ere betegarri edo eta apaingarri baino ez dira kasurik gehienetan; haria jarraitzeko behar-beharrezko ez direnak, alegia.

Tokiei dagozkienez, Zarauzko Dorrnisoron bertan kokatzen da elaberriaren zatirik luze eta garrantzitsuena. Lasturreta

eta Aizarna dira elaberrian zehar garrantzia duten tokiak, beste batzuren artean. Malentxo ikasketak egiten egon zeneko Donostia eta «La Perla» dantzatokia bereziki aipatzen zaizkigu lehen orrialdeetan. Getaria, Ernio mendia eta «Maitearena» Zito-ren udako goitza, bakanxeago aipatzen dira.

Pertsonaiak

Malentxo dugu protagonista; baina Libe, Balendin, osaba Martin eta Agerrek ere badute garrantzirik.

Zito, Dorronsorokoen antagonistatzat har genezake, Malentxorekiko harremanez Dorronsorokoen bizitzan gurutzatzen ari baitzen.

Josebe eta Martin apaiza ohitura jatorren zutoinak ditugu. Ortodoxiaren defendatzaile, Balendin eta Agerre laguntzaile dituztelarik. Malentxo eta Zito —hau batez ere— zeuden beste muturrean. Bi ahizpak —Malentxo eta Libe— zeharo desberdinak dira: bata bizi-bizia, txinparta bezalakoa; bestea isila, apala, ben-bena, istilurik inon sortuko ez zuena. Egileak kontrastean jarri nahi izan dituela dirudi. Oraindik gehiago markatzeko, hura kanporakoa eta hiri zalea da; hau, ordea, barnekoa, baserri zalea.

Josebe, etxekandre on arduratsua. Osaba Martin apaiza, nagusi zentzudun bihozpera. Gidari jatorra.

Agerre bitarteko prestua izango da Dorronsorokoentzat, edozien egoera larritik onik irtetzeko. Eta ez Dorronsorokoentzat bakarrik, baita kontatzailearentzat ere, haren laguntzaz nahi dituen hari-mutur guztiak lotzera nohiz askatzera iristen baita. Batzutan kontakizuna zerbait bortxatu egiten dela dirudi... baina Agerrek ezin duenik ez dago ia.

«Antzuela» eskale umoretsu arlotea, umoretsu bezain maltzurra; euskal pikareskan bete-betean sar daitekena.

Balendin «langillea, zintzoa, leiala, eskurakoa, zernaitarako, gizaseme bikaña ta jeikia... Ez da nolanaiko mutilla!».

Idazlearen ikuspuntua

Hirugarren pertsonan ari da. Orojakilea da; dena doa haren eskutik. Gertakari ezkutuenen berri daki; barne-asmo eta pertsonaien psikologi-barrunbe guztiak argi daude haren begirada zorrotzarentzat. Ezertxo ere ez estalirik. Gehiago oraindik: bere esku daude hari-mutur guztiak, eta berak korapilotu nahiz askatzen du mataza osoa, egoki deritzanean. Beraz, autoreak pisu handia du eta behar baino gehiago nabari da nobelari zehar. Dena dakiena, pertsonaiei dena esan eta egin arazten diena bera dela ematen du. Agerre eta Balendin-egan nabarmentzen da, batez ere, egilearen esku indartsua. Hauk doai bikainez jazten ditu; ia ahalguztidunak dira, hauen bidez zernahi lortu ahal izateko...

Azken iritzia

Euskara aldetik oso aberatsa da. Horrexegatik bakarrik ere irakurgarri eta aztergarria J. Zaitegi-ren aipaturiko eritziaz dena esanik dago. Hitz eta esaeratan bakarrik ez. Joskera aldetik ere maisua dugu Barrenso. Haren irudimen joriaren isuria liburu osoan nabari da; eguraldi eta izadia pintatzerakoan batez ere goigoitik dabil. Nire gusturako goregitik, agian, elaberri batetarako. Aitzol-ek honen olerkiaz dioena bera eta arrazoi handiagoz esan daiteke hitz-lauz ari denena: apaingarri gehiegiz, orritsuegi jazten duela bere lana, une batzutan ia-ia ardatza ezkututzeraino...

Oso gogoko zaizkio alderaketak, konparazioak. Honelako zipristindurik dago elaberri osoa. Hona adibide batzuk:

«Esku atsegiñez kiribildu du arek besoakin gerriondotik eta bekoz-beko, begiz-begi, bularrez-bular, dantzari ekin diote solairuan leunki oñak labainkatuz. Sua dario mutillari begietatik. Neskatxa, berriz, zalduntxoaren besoetan bildurik, kabiondoan sugetzarrak bigurritu dun txoriñoa bezelaxe dabil: zorabiatua, naasitua, masail-gañeko sukarra itzaldi eziñik» (Ikus 59., 60. orr.).

Hona hemen beste deskribapen polit bat:

«Etzan, agian, gizaseme bikaña mutil uaxe; baña, neskatxen artean gainbera ta ollarra bera baño ere jeikiago ibiltzen zekiana, bai. Bereala zorabiatzen zitun neska buruariñak aren ausardikeriak eta azpiko mintzaerak.

Belearen ipurtaldea baño beltzago zitun buruko illeak eta sudurpeko ille-mordoska erneberria; sagarbeltza bezaingoa, berriz, aurpegiko azala. ¡Begiak, orratio, masusten parekoak izan arren, betzuloetan oitura zunez, dirdai-jarioka jirabiratzten zitunean, utsa adiñeko ziztada eragiten zien neskatxen biozpeari, arrano pola! Ortixek zetorkion, nunbait, emakume txoroak zorarazteko indarra» (ikus 62. eta 63. orr.).

Pentsaerari gagozkiolarik, tradiziozko elaberria dugu bete-betea. Oso ortodoxoa, izan ere. Dorronsoroko familia ere euskal ohitura jatorretan ondo errotua da. Lege zaharrekoa.

Ona eta txarra kontrajarriak ageri zaizkigu. Ona baserria, izadia, indarra, ohitura onak. Txarra, berriz, hiria, jokia, ohitura txarrak. Nabarmenki goresten du indarra. Mogelen «Peru Abarka»n nabari den baserritarraren berezko jakintza, berezko trebetasun eta sena, hemen ere nabari da. Balendin-ez ari denean bereziki. Hau da: prototipoak eskaintzen dizkigu, Moglek eta Txomin Agirrek bezalaxe.

Luis Baraiazarra